

HIZKUNTZA GAITASUNA

Euskera maila

7. taula. Euskera maila

Euskera maila globala.(2 urte eta gehiagoko bizt.)	
DMA 2006 (%)	
Euskaldunak	52
Ia-euskaldunak	22
Erdaldunak	26

Iturria: Eustat

Eustatek emandako datuen arabera, 2006an, Merinaldeko biztanleen erdia baino gehiago (%52) euskaldunak dira, biztanleen %22 ia euskaldunak (euskeraz nekez ulertzen eta/edo hitz egiten dutenak) dira eta gainerakoak, %26, erdaldunak. Kopuru hauek Bizkaia osoarekin konparatuz, egoera soziolinguistiko ezberdina islatzen dutela igartzen da. Izan ere, Bizkaiko datuak ondoko hauek ditugu: euskaldunak, %31,4; ia euskaldunak: %23; erdaldunak: %45,6. Bestalde, erreferentziarako eskualdea den Gernika-Bermeo hartuko dugu datuak erkatzeko. Gernika-Bermeoko eskualdean (Eustatek hartutako lurralde-irizpidea, 43.909 biztanlerekin), %72,6 euskaldunak dira, %16,55 ia euskaldunak eta %18,8 erdaldunak. Beraz, datuei begira, Bizkaiko eta Gernika-Bermeoko datuetatik erkatuta, DMA bi egoera soziolinguistiko horien artean erdibidean dago, hau da, Bizkaia osoan baino euskaldun gehiago eta Gernika-Bermeon baino gutxiago.

8. taula. Euskaldunen kopurua, udalerriaren arabera

DMAko euskaldunen kopurua, udalerriaren arabera

udalerria	ehunekoa	kopurua
Abadiño	12	3.525
Atxondo	3	923
Berriz	9	2.507
Durango	45	13.117
Elorrio	14	4.034
Garai	1	236
Iurreta	6	1.839
Izurtza	1	198
Mañaria	1	395
Otxandio	3	800
Zaldibar	5	1.365
denera	100	28.939

()

8. taulan zera ikusten dugu: udalerrri bakoitzak duen proportzioa DMAko euskaldun kopuruan. Durangok, biztanleria kopuru handiagatik, ehuneko handiena ematen du. Durangoren ostean, Elorrio (%14), Abadiño (%12) eta Berriz (%9) datoz.

Euskera maila udalerrri bakoitzean

Herriz herri ikusita (9. taula eta 4. grafikoan), biztanleriarekiko proportzioan, euskaldun kopuru handiena Mañarian topatzen dugu (%88,36), eta ondoren, Izurtzan eta Garain (%81 eta %80,8), hala ere, bakoitzak DMAko euskaldun


kopuruaren %1 baino ez du osatzen. Herri hauek Amankomunazgoko kopurua (%52) erraz gainditzen dute. Beste muturrean Durango (%48), lurreta (%49,2) eta Abadiño (%51) kokatzen dira, eskualdeko ehunetik beherago. Beraz, euskaldun izaera izanda ere, Amankomunazgoa heterogeneoa da.

9. taula. 2 urte eta gehiagoko biztanleria, euskera mailaren arabera udalerrri bakoitzean

2 urte eta gehiagoko biztanleria, udalerrriaren eta euskera maila orokorraren arabera				
	euskaldunak	ia euskaldunak	erdaldunak	denera
Abadiño	3525 (%51)	1561(%22,5)	1829(%26,5)	6.915
Atxondo	923 (%66)	162(%11,6)	311(%22,3)	1.396
Berriz	2507(%54,7)	852(%18,5)	1233(%26,8)	4.592
Durango	13117 (%48)	6956(%26)	7009(%26)	27.082
Elorrio	4034 (%58,6)	1200(%17,4)	1647(%24)	6.881
Garai	236(%80,8)	40(%13,7)	16(%5,5)	292
lurreta	1839 (%49,2)	808(%21,62)	1090(%29,28)	3.737
Izurtza	198 (%81,14)	21(%8,6)	25(%10,25)	244
Mañaria	395 (%88,36)	34(%7,6)	18(%4,04)	447
Otxandio	800 (%70,2)	180(%15,8)	159(%13,97)	1.139
Zaldibar	1365 (%49)	570(%20,4)	855(%30,6)	2.790

Iturria: Eustat. Biztanleria eta Etxebizitza estatistika. 2006

4. grafikoa. 2 urte eta gehiagoko biztanleria, euskera mailaren arabera udalerrri bakoitzean



Iturria: EUSTAT. Biztanleria eta etxebizitza estatistika. 2006

Euskera maila adinaren arabera

10. taula. Hizkuntza gaitasuna adinaren arabera

DMA: Hizkuntza-gaitasuna (≥ 5 urte), adinaren arabera, 2001

	5-19 urte	20-34 urte	35-49 urte	50-64 urte	65etik gora
	6.382	6.588	5.223	3.650	4.431
elebidunak	%24	%25	%20	%14	%17
	893	3.423	2.460	953	609
elebidun hartzaileak	%11	%41	%30	%11	%7
	558	3.194	4.962	4.537	3.257
erdaldun elebakarrak	%3,3	%19,3	%30	%27,4	%20


Iturria: EAS (Euskal Herriko hizkuntza-adierazleen sistema)

Adin-tarteak aztertuko ditugu, adinaren eta hizkuntza gaitasunaren arteko erlazioa ikusteko. *Elebidunak* multzoan (euskaldunak hemen daude sartuta) 20-34 urte bitarteko adin-tartea nagusitzen da (%25), nahiz eta 5-19 urte bitarteko tartek ia kopuru berdina ematen duen (%24).

Elebidun hartzaileen kopuru nagusia 20-34 tartean dago, (%41). Elebidun hartzaileak (“euskeraz “nekez” hitz egin edo, hitz egin ez arren, “ondo” ulertu edo irakurtzen dutenak”, Hizkuntza Politika Sailburuordetzako definizioaren arabera), 35-49 urtekoen artean ere kopuru handian topatzen ditugu (%30).

Erdaldun elebakarrak, batez ere 35 eta 49 urte bitartean daude. Honi buruz ez dugu ahaztu behar tarte horretakoak umeak eduki edo hazi eta hezteko sasoian egonda, oso kontuan hartzekoak direla hizkuntza plangintzari begira.

5. grafikoa. Hizkuntza gaitasuna (≥ 5 urte) adinaren arabera (ehunekoak). 2001



Iturria: EAS (Euskal Herriko hizkuntza-adierazleen sistema)

Elebidunak aldagaian, gazteen portzentaje altua begi-bistakoa da. Portzentaje hau hezkuntza ereduaren emaitza dela kontuan hartzen badugu, gaitasuna bermatuta dagoen arren, *erabilera* arloa izan litekeela ahulena pentsatu dezakegu, izan ere, euskera ezagutzeak ez du, inondik inora, erabilera ziurtatzen.

Horrela ikusiko da, esaterako, beste atal batean *ama hizkuntza* eta *etxeko hizkuntza* alderatzen ditugunean. Bestelako kontuek baldintzatzen dute

euskeraren erabilera, hala nola, ingurune euskaldunean bizi ala ez, eskolatik kanpo euskeraz berba egiteko ohiturarik dagoen, etab. Horregatik, adin-tarte hauek harrobia izanik, jarraipen sakonagoa egin beharko litzateke beste esparru horiek hobeto ezagutzeko.

Hizkuntzaren bilakaera

Hizkuntza bilakaera ikusteko, hainbat urtetako datuak aztertuko ditugu. Eustat iturritzat hartuta, ikusitako hiru multzoetan (euskaldunak, ia euskaldunak, erdaldunak) ematen diren kopuruak beheko taulan daude ikusgai.

11. taula. Hizkuntza bilakaera

		DMA (ehunekoak)			
		1981	1986	1996	2006
euskaldunak		41	43	50	52
ia euskaldunak		14	14	14	22
erdaldunak		45	43	36	26


Iturria: EUSTAT

Portzentajeak aztertuta, euskaldun multzoari dagokionez, poliki eta etengabe gora doala nabaritzen da. Lehen bost urteetan (81-86), 2 puntu gora egin zuen kopuruak; ondorengo hamarkadan, 7 puntu, eta azkeneko hamarkadan, beste bi.

Gainera datuok bat datoz beste multzoetako kopuruokin. Izan ere, *erdaldunak* multzoan, lehen denbora tartean kopuruak 2 puntuko beherakada egin zuen, bigarren tartean, berriz, 7, eta azkenekoan, 10. Beraz, ondorioztatu daiteke aldaketa kualitatibo nabarmena 86-96 hamarkadan eman zela, erdaldun kopurutik euskaldun kopurura eman baitzen portzentaje aldaketa.

Bestalde, azkeneko tartean, erdaldun multzoaren beherakada batez ere *ia euskaldunak* kopuruaren igoeran islatzen da (aurrekoan euskaldun kopuruan islatu zen moduan). Irakurketa honek 86-96 hamarkadan gertatu zen aurrerakada azpimarratzen du, bide batez, orduko egoera soziolinguistikoaren ingurumariak eta hartu ziren normalizazio neurriak -besteak beste, D ereduan eskolaratzea-eraginkorrak izan zirela nabarmentzeko.

6. grafikoa. Hizkuntza bilakaera



6. grafikoa hiru multzoetako bilakaera azaltzen da. Nabaria denez, behera egiten duen marra erdaldun kopuruari dagokio, eta horixe da azken bi hamarkadetan etengabe portzentajea jaisten doana. Beste bi marrak gora eginez ageri dira, nahiz eta euskaldun multzoaren gorakada asko moteldu den azken hamarkadan.

Azken denbora-tartean *ia euskaldunak* eta *erdaldunak* multzoek bat egiten dute kopuruari dagokionez. Grafikoaren hasieran marra hauen arteko aldea ikusita, ondorioztatu daiteke 86-96 tartean erdaldunen multzotik *euskaldunak* multzora eman zela jauzia, 96-06 tartean, ostera, *ia euskaldunak* multzora aldatu zen kopuru gehiago *euskaldunak* multzora baino.

Ama hizkuntza eta etxeko hizkuntza

12. taula. Biztanleria, lurralde-eremuaren, ama-hizkuntzaren eta etxean hitz egiten den hizkuntzaren arabera. 2006

	Guztira	Ama hizkuntza				Etxeko hizkuntza			
		euskera	gaztelania	biak	beste bat	euskera	gaztelania	biak	beste bat
Abadiño	7.144	2.477	4.014	419	234	1.752	4.428	905	59
Atxondo	1.435	725	630	66	14	512	642	271	10
Berriz	4.771	1.798	2.576	263	134	1.267	2.779	681	44
Durango	27.925	8.154	16.693	2.318	760	4.829	18.716	4.017	363
Elorrio	7.075	3.131	3331	529	84	2.215	3.605	1.219	36
Garai	302	218	61	14	9	163	71	66	2
Iurreta	3.833	1.341	2.196	185	111	943	2372	484	34
Izurtza	248	191	49	5	3	134	62	52	0
Mañaria	456	354	79	18	5	249	98	109	0
Otxandio	1.172	633	406	117	16	447	480	235	10
Zaldibar	2.864	989	1.668	143	64	689	1.839	314	22
Denera	57.225	20.011	31.703	4.077	1.434	13.200	35.092	8.353	580

Iturria: EUSTAT. Biztanleria eta etxebizitza estatistika. 2006

12. taulan, Eustatek emandako datuak ditugu, 2006koak, alegia. Biztanleriaren kopuruak ikusgai ditugu, *ama hizkuntza* eta *etxeko hizkuntza* aldagaietan.

13. taulan, kopuruak ditugu eskualde osorako.

13. taula. Ama hizkuntza eta etxeko hizkuntza

Ama hizkuntza eta etxeko hizkuntza % (DMA)

DMA (%)	euskara eta			
	euskara	gaztelania	beste bat	
Ama hizkuntza	35	7	56	2
Etxeko hizkuntza	23	15	62	1

Iturria: EUSTAT. Biztanleria eta etxebizitza estatistika (2006)

Horrela, euskera, DMAko biztanleen %35en ama hizkuntza izanik, jatorriz elebidunak direnen kopurua gehituta (%7), jatorriz euskaldun edo elebidunak direnak %42 dela ikusi daiteke. Ama-hizkuntza gaztelania dutenak, berriz, %56 dira.

Etxeko hizkuntza aldagaiari begiratuz gero, euskerazko portzentajea aurreko aldagaiarekiko jaitsi egin dela argi dago, eta gaztelera edo hizkuntza biak erabiltzea, ostera, ama-hizkuntzaren proportzioaren gaineratik kokatzen da. Izan ere, euskera ama hizkuntza duten askok berba egiterakoan euskera zein gaztelera edo gaztelera soilik erabiltzen dute. Azkenik, ama hizkuntza *beste hizkuntza bat* dutenen ia erdiak ere gaztelera hitz egiten du etxean. Gainera, aipatu diren joerak udalerrri guztietan gertatzen dira, proportzio handiagoan edo txikiagoan, herriaren arabera.

Laburbilduz, etxean euskera hitz egiten dutenen proportzioa txikiagoa da ama hizkuntza euskera daukatenean baino, eta hau, zalantza barik, euskeraren egoeraren adierazlea dela esan behar dugu, aintzat hartuta etxea dela euskeraz hitz egiteko eremu naturalean.

HEZKUNTZA

Irakaskuntza ereduak, herriaren arabera

14. taula. Irakaskuntza ereduak, herriaren arabera

Irakaskuntza ereduak hezkuntza mailaren arabera (%) 2006/07

	Haur hezkuntza		Lehen hezkuntza		DBH		Batxilergoa			Lanbide Heziketa		
	B	D	B	D	B	D	A	B	D	A	B	D
Abadiño	16	265	49	193	65	115						
Atxondo		27		40								
Berriz		198		177		142						
Durango	424	1.100	572	1.113	390	662	141	77	608	15	251	73
Elorrio		343		359		268						
Garai												
Iurreta		116		120		180			87	23		207
Izurtza												
Mañaria												
Otxandio		42		52								
Zaldibar		118		118								

Iturria: EUSTAT. Hezkuntza Saila

14. taulan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko datuak ditugu, 2006/07 ikasturtekoak, Eustatek emanda, herri bakoitzean. 15. taulan, berriz, datu orokorrak ikusten ditugu. DMAko hezkuntza mailetan D ereduak da nagusi, batez ere Haur Hezkuntzan: %83,4. Modu berean, Lehen Hezkuntzan, DBHn eta Batxilergoan ere D ereduaren proportzio handia dugu (hiru heren). Lanbide Heziketan, berriz, bestelako egoera ematen da, D ereduaren proportzioa erdia izanik, eremu erdaldunena dela esan dezakegu.

5.2 Irakaskuntza ereduak, eskualdean

15. taula. Irakaskuntza ereduak


DMA:Irakaskuntza ereduak hezkuntza mailaren arabera (osoak eta %) 2006/07

	A ereduak	B ereduak	D ereduak	A ereduak (%)	B ereduak (%)	D ereduak (%)
Haur hezkuntza		440	2.209		%16,6	%83,4
Lehen hezkuntza		621	2.172		%22,2	%77,8
DBH		455	1.367		%25	%75
Batxilergoa	141	77	695	%15,5	%8,5	%76
Lanbide heziketa	38	251	280	%6,7	%44	%49,3

Iturria: Eustat. Hezkuntza Saila.

7. grafikoa. Irakaskuntza ereduak

DMA:Irakaskuntza ereduak hezkuntza mailaren arabera (ehunekoak) 2006/07



Honen harira, Hezkuntzako hainbat txostenetan esandakoak gogora ekarriko ditugu:

“D ereduak aurrera doa hezkuntza maila guztietan, eta hori oso positiboa da euskalduntze prozesuarentzat. Dena dela, DBHn eta batxilergoan D ereduak pisu handia izateak eta, aldiz, Lanbide Heziketan A ereduak nagusi izateak zer pentsa ematen du”. (Iturria: Eustat- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila).

Badirudi Lanbide Heziketa baztertuta geratu dela Hezkuntzaren euskalduntze prozesuan.